

Gure harremanak:

Gure enpresan lortu nahi duguna, bezero kopuru finko bat edukitzea eta hortik aurrera bezero berriak lortzea.

Horretaz aparte, gure enpresan lehenengo bi asteetako ile mozketen prezioa 6 €-koa izango da bezero berriak erraz lortu ahal izateko eta hortik aurrera 9 €-ko prezioa izango du ile mozketari bakoitzak gure enpresak dituen bezeroei eutsi ahal izateko.

Baita ere, Durangotik zehar kartelak jarriko ditugu eta ile-mozketa domiziliario baten aukera izango dute gure bezeroek. Domizilioarekin esan nahi duguna da, jendearentzako erosotasun bat ematea da. Adibidez: pertsonak denbora gutxia duten momentuan erraztasun hori ematen diegu, konfinazio bat egongo balitz aplikazioarekin lortzen duguna da leku hartara joatea eta ile eskaintza bat ematea gure enpresa dirurik ez galtzeko eta segurtasun osoarekin ilea mozteko hor ere bezero eta langilearen komunikazioa oso garrantzitsua da arazorik ez egoteko eta hainbat egoera gehiagorentzako ere erabilera ematen diogu.



Bazkide izateko aukera izango dute ere. Bazkide izatea ematen duen abantaila, hilean behin joaten bada ileapaindegira bazkide izanik, prezioan euro bateko beherapena izango duela da.

Azkenik, gure lokalean musika, bideo-joko kontsolak eta ingurune ona izango duenez, jendeak lokal on eta kalitate handikoa dela pentsatuko dute eta gure ile-mozketa domiziliarioaren aukerarekin gure bezeroek eroso sentituko dira eta gure enpresak haien konfiantza lortuko du.